

***Erbestearen iluntasuna:
euskal emakumez zenbait argi izpi.***

*Idoia Fernandez. Pedagogian doktorea eta
UPV/EHUko Fia. eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko
irakaslea.*

"No se sufre el exilio cuando él es sólo dolor y pesimismo. No se sufre el exilio cuando él es sólo razón. Sufro el exilio cuando mi cuerpo consciente, razón y sentimientos, mi cuerpo entero se siente por él afectado. De esta forma no soy solamente lamento, sino proyecto. No vivo sólo en el pasado sino que existo en el presente preparándome para un posible regreso" (Paulo Freire, A la sombra de este árbol)

Freireren hitzen ederra ez da ezbaitzekoa baina, edertasunaz gain, erbesteratzearen esanahiaz blai datoz nire irudiko. Erbestea denboraren taupadetatik neurtutako prozesu bezala ulertuta, iraganak eta galeraren sofrimenduak gaurkoari esangura eman eta etorkizuna eraikitzen duen egitasmoa alegia. Sekuentziari ezin lekiokoe hiru taupada hauetatik bat ere kendu, bere benetazkotasuna lausotu gabe behintzat.

Aitortu behar dut, Freieren artikuluxka irakurri aurretik erbestea zer zen definitzeko makina bat zailtasun izan dudala. Zer da erbesteratzea? Euskarak ongi azaltzen du herriaz beste egitearen zentzua, baina joateko arrazoiak eta egoerak anitzak diren heinean eta bertan egoteko jarrerak ere ezberdinak izan daitezkeen neurrian erbesteratze anitzez hitz egin beharraz aurkitzen dugu burua. Espainiako gerra zibila amaitzen denetik aurrera erbesteratze zabal bati hasiera ematen zaio. Mina, samina, herrimina sortarazten dituen erbesteratzea non etorreraren zioak bizirik dirauen.

Baina erbesteratze zenbait luzeegi bilakatu eta hurrengo belaunaldia erbeste horretan jaio, hazi eta bizi izan da, zenbaitetan etorrera esanahigabetuz, proiektua herri hartzaileetan zehaztuz. Orduan erbestea indargabetu egiten da, urtu, desagertu, eta herrimin ahul bihurtzen da, atzokoari begirako negar isila.

Baina goazen urratsak ematen!

Edozein erbestek aurreko denbora batekin dago lotuta eta, gure kasuan, emakumeen erbesteaz galdetu behar badugu ezinbestean gerraurreko Emakume Abertzale Batzaz hitz egin beharko genuke. Gaia zabala eta emankortasunez aztertu da iadanik eta ez gara horretan arituko¹. Dena den gogora ekarriko ditugu ideia nagusi batzuk:

a) Emakume Abertzale Batza izan zen bere militantzia zabala (25.000 emakume inguru) nazioaren eraikuntzan sozializatu egin zuen erakundea. Sozializazio hori emakumeek jokatu beharreko arraza, kultura, hizkuntza, erlijioa eta ideologia politikoaren birsortze funtzioan zetzan.

b) Sozializazio politiko hau, bere eduki teorikoetan jenero banaketaren ildotik aldaketarik ekartzen ez bazuen ere, emakumeen praktikak espazio publikoetaraino iristeko baliogarria izan zen, zenbait momentutan gainera ekintzen izaera politikoa gardenki isladatuz (gogoratu ditzagun emakume mitinlariak, propagandistak edota kale istiluetan gizonaen laguntzaile gisara ibiltzen ziren emakume gazteak).

d) Gerraren hasierak ederto demostratzen du zenbait emakumeren partehartzeak ekintza politikoraino hedatzen jarraitzen zuela (Araba sarea, adibidez²).

e) Emakume gehienek lana, ordea, ez zen horretan zentratu eta euskal kolonietan eta, oro har, aurreko denboretako ongiegitea, haurtzaroaren eta gaztaroaren sozializazioa eta ideia nazionalisten zabalkundean zehaztu zela esan genezake, espazio pribatu eta komunitarioak dinamizatu.

¹ LARRAÑAGA, P. d. (1978): **Emakume Abertzale Batza**. Auñamendi. UGALDE, M. (1992): *El movimiento de las mujeres en la Comunidad Nacionalista Vasca hasta la guerra civil. I. Congreso de Historia Contemporánea*. Salamanca. UGALDE, M. (1993): **Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936**. EHUko Argitarapen Zerbitzua. Bilbo.

² CHUECA, Josu eta FERNANDEZ, Luis: *Erresistentzia sareak EGUNKARIA 1997/10/5*. BARRIOLA Inaki (1978): **19 condenados a muerte**. Donostia. Ediciones Vascas. CHUECA, J. (1989): *Mujeres antifranquistas en la retaguardia nacional* in **Las mujeres y la guerra civil española**. III Jornadas de estudios monográficos. Salamanca.

Honelakoa izan bazen erbestera aurrekoa, zer gertatu zen ondoren, galdetu beharko genuke. Non sartu ziren milaka emakume horiek? Zer egin zuten? Nola burutu zuten ordura arte gauzatzen ari ziren naziogintza?

Aurreko ikastaro batean azaltzen genuen bezala, emakumeen jarraibideak ezberdinak izan diren arren badago testigantza guztietan diskurtsoetan darabilten ideia bat: **jarraipenarena**, alegia, denbora hobeak etorri bitartean egiten jarraitu, ahal den neurrian, ordura arte egiten zena. Freirek aipatzen digun etorkizunerako etengabeko begirada hori, jarraitzearen ideia, oso ondo laburbiltzen zigun hamasei urterekin Iparraldera alde egin eta 70.hamarkadara arte han egon zen EABko emakume baten alabak: "*Bildu, hasi berriro, hasi berriro ez, jarraitu, jarraitu, berdin jarraitu*". Bitxia bada ere, Donostian 50.hamarkadan antolatu ziren euskal etxe eskoletako partaideen ahotan ideia bera aurkitzen dugu -Elbira Zipitria berari ere leporatzen diote- eta horretxek ematen die zentzua ekinbideei³.

Jarraipen grina hau, gainera, ezin dugu historia gertatu ondorengo gure egoeratik besterik gabe irakurri, zeren planteatzen zen momentuan ez baitzen inolaz ere pentsatzen Frankoren diktadurak luze joko zuenik. Erbestera zein gelditzen diren artean une politikoa oso puntuala zelako bizipena agertzen zaigu, eta jarraitzearen ideia testuinguru nolabait "inmediatista" honetan kokatu behar dugu.

Gerra eta frankismoarekiko ideia hauez gain, oso garrantzitsua iruditzen zaigu beste datu bat kontuan hartzea, alegia, EABko emakumeen bizipenetan eta bizitzetan gerrak daukan esangura ulertzea. Esana dugu emakume nazionalista hauei zuzentzen zitzaien diskurtsoa jeneroen arteko banaketa hertsia dela, hau da, egon badaudela gizonezkoei dagozkien funtzio eta eginbeharrak emakumezkoei dagozkienak dauden bezala, nahiz eta gero praktikan diskurtsoak ez duen beti balio errealitatean dauden praktika sozial guztiak azaltzeko. Gerrak egoera jakin baten bukaera bortitza suposatuz bazuen ere, ezin dugu ahaztu gertakari politikoa dela eta, politikoa den neurrian, jeneroaren eraikuntzaren ikuspuntutik gizonezkoei zegozkien ekintza eremuan kokatu behar dela. Gizonezkoak izango dira euren ordenetik jaurtikiak direnak, erakunde politiko eta administratiboetan zeukaten eragina galduta armekin borrokatzen dutenak, persegituak eta akabatuak direnak. Joseba Zulaika

³ FERNANDEZ, Idoia (1994): **Oroimenaren hitza. Ikastolen historia.1960-1975**. UEU, Bilbo.

antropologoak “Violencia Vasca” lanean jasotzen zuen bezala: *“el padre perdió la guerra”*.



Jesuiten Egoitza Donostiako Ikastetxea. Odroziolaren argazkia

“Historia del País Vasco”. Manuel Montero, 174 or.

Zer gertatzen da emakumeekin? Zer esanik ez gerraren ondorioak pairatu zituztela baina **euren sexuari dagozkion funtzioak betetzeko baldintzak bere horretan mantendu zirela esan genezake**. Frankismoak politikagintzarako eremua akabatu zuen eta bera ez bezalako mugimendu politiko ezberdinetako partaideak ere akabatzen saiatu zen. Errepresioa zabaldu zen, Patxi Zabaleta idazleak “Badena dena da” elaberrian kontatzen digun bezala terrorearen ordua zen. Baina terroreak eta errepresioak ezberdin funtzionatu zuten emakumezkoekin, eta zehazkiago emakume nazionalistekin.

Emakumeek errepresioa jasan zuten, baina izaera diferentziala duela ezin dugu ahaztu: zigorrik eta ohizkoenak ile mozketak, jendearen aurreko umiliazio eta irainak (errizinolioa emanda desfilatzen jarri kaleetan zehar edota kaleak garbitu...), kartzela, esilioa.... baina biziraupenaren mehatxu konkretua, gizonen

kasuarekin konparatu ezkerro, nahiko urruna da⁴. Ez dakigu zehazki frankistek zeintzuk arrazoi izan zituzten errepresio diferentzial hau burutzeko, baina hipotesi gisa euskal nazionalismoaren katolikotasuna edota gizarteaz zeukaten banaketa sexualaren ikuspegia bera gainera genitzake.

Beraz, sexuen banaketaren araberako erroletan jarraitzearen beharrea sentitzen ziren emakumeek, testuinguruan aldaketak egon arren, euren ohizko praktika hezitzaile eta sozial nagusien ildoetan aritzeko esparruan mantentzeko aukera izan zuten, hau da, funtzio nagusia aldatu gabe praktikak egokitu egin zituzten historiaren beste zenbait momentutan egin zuten bezalaxe (gogora dezagun Primo de Riveraren diktadurapeko legez kanporaketa, adibidez).

Puntu honetara iritsita, Hego Euskal Herrian gelditu edota Iparraldean edota erbestean mantendu ziren emakumeen kasuak bereiztu behar ditugu:

a) Lehenengo kasuan, oro har emakumeen funtzioa espazio familiarretara bildu zela gaineratu beharko genuke. Hor dugu, beraz, Hegoaldeko emakume gehien esparrua. Hala ere, ikerketa lerro honek egoera horren gardenki ezin dela definitu adierazten digu, zeren emakume nazionalisten sozialibitatea gauzatuko zen beste esparru batzuk ere eratu baitziren.

Esparru horietako bat heziketa formaleko esperientzia dugu, Donostiako etxe eskoletako hain zuzen. Kasu honetan EABko sare baten berregituraketarekin topo egiten dugu, bere baitan hizkuntza eta kulturaren igorketaren helburua zeukan egitasmoa errealitate bihurtu zuen esperientzia alegia, Bigarren esparruaz berriz, erbestearen ikerketa honek emandako argi izpi bat baino ez dugu ezagutzen: Hegoaldean ere EAB ari zela lanean errepresaliatuen inguruan, aurrerago ikusiko dugun bezala.

b) Bigarren azterketa, frankismoaren eragin zuzenaren menpean ez zeuden emakume nazionalistena dugu, Iparraldea eta erbestea. Kasu honetan emakumezkoek sarri askotan EAB berrantolatzea lortu zutela ikusi ahal izan dugu, eta egituraren berrantolatze horrek ahalbideratu zien funtzioaren betekizuna eta zegozkien iharduerak gauzatzea.

⁴ Erreprestoaren historia, Nafarroako kasuan kenduta, idatzi gabe dago eta ezberdinak dira eskuratu daitezkeen datuak, baina afuslatuak, oro har, gizonaekoa dira A. Elorza historialariak Paulina Mujika izenekoa izan zela afuslatutako emakume bakarra. ELORZA, A (1978): *La mujer en el nacionalismo vasco*. Tiempo de historia.38.zkia. Hala ere beste partiduetan kasuak ez zirela hain isolatuak izan gaineratu behar dugu baina kuantitatiboki kopuruak arras esanguratsuak direla uste dugu. Adibide gisara ikus Nafarroako gertakariak: ELKARLANEAN (1992): *Navarra, 1936. De la esperanza al terror*. Altafaylla Kultur Taldea.

Lehenengo eta behin erbesteko lehenengo urteetako emakumeen ekintzaren berreraikuntza oso zaila suertatzen zaigula esan nahi dugu. Eguneroko oinarriko biziraupenarako ahaleginak (etxebizitza, lana, elikadura, osasuna, dokumentazioa...) nagusi ziren garaiak ditugu, eta emakumeen funtzionamendua geroagokoa baino ez- formalagoa zela susmatzen dugu. Dena den biltzeko eta antolatzeko deia Basque Women's Association izenekoan zebiltzan Londreseko emakumeek Amerikako euskal prentsan argitaratutakoan aurkitzen dugu:

*"Nosotras nos hemos constituido en asociación de todas las mujeres vascas de Inglaterra. En nuestras filas figuran las diversas tendencias doctrinales que vivían en Euzkadi al dejar nuestro suelo. Nos unen tres principios fundamentales: los ideales cristianos, sin sujeción a norma religiosa confesional perceptiva; la democracia, como aspiración humana de libre convivencia, y la personalidad nacional vasca, sin que su definición se entregue a partido político alguno"*⁵.

J.A. Agirre Erbesteko Euzko Jaurlaritzari fidelitasuna adieraziz eta harek euskaldun guztiak biltzeko egindako eskaera bere eginez zera diote: *"Mujeres vascas: organizaos, trabajad en la medida de vuestras posibilidades, ayudad a los hombres de vuestra raza, poneos a las órdenes del Gobierno de Euzkadi, entablad relaciones unas con otras para que nuestro esfuerzo colectivo pueda ser utilizado con el máximo rendimiento"*.

Dauzkagun datuekin zaila da deialdi honen benetako oihartzuna baloratzea, baina argi dagoena da erbesteko lehenengo urteetatik EABren talde aktiboak lanean ari zirela, gutxienez, Londres, Paris, Caracas, Buenos Aires eta Iparraldean. Talde hauen eginkizunak atal nagusi bitan bana daitezkeela uste dugu:

a) Haur eta gazteen sozializazioa, nagusiki eurek zeukaten euskal nazioaren ideia sortuz eta birsortuz, nagusiki espazio familiar eta komunitarioetan (euskal etxeak) eraginez.

b) Preso eta errepresaliatuen aldeko sare propioen bitarteko diru bilketa eta banaketa.

⁵ **BASQUE WOMEN'S ASSOCIATION (1944)**. *A las mujeres vascas*. Euzkadi, 8. zkia. 27-28. Londresen egina 1943.eko irailaren 25.ean. Lauri Puerta, M. Teresa de Larruzca, M. Cruz Fernández Zubezu, Anita de Gabarain, Dorothy Clark eta Miren de Irujo izan ziren deialdiaren egileak.

Ekintza lerro hauek biderkatu daitezke askoz ere ekintza zehatzago eta tokiz tokiko gehiagotan, baina funtsean emakumeen eginkizun "tradizionalari" erantzuten diotela argi dago: euskal taldearen zainketa eta birsorkuntza ideologikoa, euskal familia handia eta txikiaren irudi ezaguna dinamizatuz.

Gure gaurko saio honetan arreta bigarren ihardueran ezarri dugu, Caracaseko EAB ikertzerakoan erakunde honen sarearen argi ilunak agertu zaizkigulako. Hau da, orain arte EAB gerrara arte kemen handiz eta biderkatzaileaz gizarteratutako erakunde bezala definitu ahal izan baldin badugu, gerraostean ere berrantolatzea eta helburu batzuk betetzea lortu zuela gaineratu beharko genuke, nahiz eta oraindik orain ikerlerro baten hastapenak direnak baino aurkeztu ezin ditugun.

Erbesteko EAB eta errepresaliatuentzako elkarlaguntza

Preso eta errepresaliatuekiko lana da gerra hasten zen momentutik emakumezkoekin loturik agertzen zaigun zeregina. Ez zen, ordea, haientzako lan berria. Orokorrean gure historia hurbilean gerrak suposatu zuen etena hain erabatekoa izan zen ezen aurretikoaren irudi sasi idilikoa eraikitzeke joera agertzen baita, baina irudiok espejismoak baino ez direla esan behar dugu. Irudi gezurti hauei muzin eginez, errepresioari dagokionez intentsitate ezberdineko uneak daudela kontuan hartu beharko genuke. Zeren gerra zibilak ekarritako ondorioak latzenak izan arren, Euskal Herrian errepresioa XX. mende osoan mantendutako gertakaria baitugu: preso politikoak, erbestetatzeak, epaiketak⁶... Memorian zein mende osoan zeharko prentsan isladatuta topatzen dugun errepresioaren historia honetan beti antolatu dira laguntza mekanismoak non, oro har, emakumeek paper nagusi bat jokatu ohi duten⁷.

Errepresaliatuen inguruko erantzun hauek, beraz, oinarria aurkitzen dute aurreko garaietan, ez dira goizetik gabea agertzen. Baditugu hauen berri

⁶ Gogora ditzagun Jagi-Jagiren delak: "No olvidéis a Ildiákez! No olvidéis a los presos". Honen inguruan ikus: GALLASTEGI, E.: *Por la libertad vasca*. Jose M. Lorenzo Espinosa historiagileak egindako berrargitalpenean. Txalaparta. Tafalla. 73-102. orri.

⁷ Araba Sarearen antolamendua ere kartzelen ingurutik sortzen da, Bittori Etxeberriak kontaktzen zuen bezalaxe: "Jose Maria Lasartek Baionara deltu ninduen eta erran zidan: Gudariak Santoñan erori dira eta ez dakigu zein baldintzapean errenditu diren. Joaten ahal zara zu?. Donostiako ba Itziar Mujika komendatu zidan. Honengana jo nuen eta harremanetan sartu ginen gizona preso zuen Delia Laurobarekin. Hor hasi zen gure erakundea. Laurobak kontaktua egin zuen El Dueson zegoen sukaldari donostiar batekin eta honek luzatu zigun Santoñako Hitzarmena. Eltzondorat ekarri zidan Delak eta ni, Aldudetik, Agustín Ariztia lagunduta, Baionara joan nintzen. Horrela hast zen, Santoñakoarekin. Hor jaió zen erakundea" EGUNKARIA.

gerraren hasiera beretik, franskistek Nafarroa menperatu zutenetik eta, San Kristobaleko gotorlekuan bezalaxe, ez litzateke zaila izango kartzela nagusien inguruan honelako emakume taldeak aurkitzea. Euren eginbeharrak ugariak ziren: presoek arropak jaso eta garbitu, janaria eta medizinak eramane, senidei laguntza eskatu, informazioa trukatu, kanpoarekiko komunikazioa mantendu... "Seguimos pagando la cuota y yo le daba a ese mi cuota. Porque era cuando esto hay que organizar y no nos vamos a quedar así y tal y cual. Y bueno, este comenzó la asistencia a presos ¿entiendes? y entonces sí, entonces ya íbamos a su casa, allí nos decía a qué preso habíamos de visitar, entonces era una cosa organizada de verdad porque ya era y hubo un grupo de emakumes que subíamos todos los días, todas las semanas dos veces. El lunes subíamos por la ropa sucia, nos bajábamos unos zacutos de ropa, que entonces no había estas cosas que hay ahora para quitar los parásitos, pues llenos de piojos, bueno..."⁸.



Baina nola lotzen da hau guztia erbestearekin? Egia esan, erbesteko kasu jakin bat aztertzean, Venezuelakoa alegia, agerian utzi dugu kartzela eta erpresaliatuaren inguruan frankismo osoan zehar funtzionatu zuen elkartasun

⁸ M. A. Azketa. Iruñean egintako elkarrizketa. 1994/V/26.

sarea konplexua eta bizia izan zela, hau da eta gure lan hipotesiari helduz, frankismoak EAB erakunde formal bezala desagertu bazuen ere, erbesteratutakoen artean birsortu egin zela eta aurreko eginkizunetan aritu zela erregimen horrek iraun zuen bitartean. Erbestearen azterketa honek, gainera, argi erakusten digu hegoaldean ere EABko zenbait talde egon bazeudela guk Donostiakoaz aparte besterik ezagutzen ez dugun arren.

Beraz, errepresioaren historiaren berreraikuntza honetan oso hutsune haundiak dauzkagu oraindik. Alde batetik altxamendu faszista zabaldu ahala errepresialiatuekiko laguntzen testigantzak jaso ditugu baina bere horretan mantendu zireneko froga erbesteratutako emakumeen testigantzetatik jaso dugu, alegia, hegoaldeko hiriburu guztietan elkartasun lan horrek jarraitu egiten zuela.

Caracaseko kasuari begiratzen badiogu, 1939.ean iristen hasi ziren erbesteratuek hasierako momentuetatik euren artean antolatzeko grina erakutsi zutela nabaria da: 1941.ean "Asociación Vasca de Socorros Mutuos", 1941.ean Euskal Etxeko lehenengo zuzendaritza batzordea eratu zen, eta 1942.ean Acción Femenina Vasca, geroago Emakume Abertzale Batza izena berreskuratuko zuena⁹.

Emakumeak Euskal Etxearen eraketan bertan ere eratu zirela aipatzen bada ere, ez dugu beraien lanaren berri zehatzik aurkitu hurrengo hamarkadara arte, ez badira Euzkadi aldizkariaren "Ecos del Centro" izenekoan argitaratzen diren ohar laburrak. 1946 eta 1947.ean tonbolaren eraketa, umeentzako azkariak, dantza erakustaldiak eta emakumeen abesbatzaren iharduera dira aipatutako ekintzak¹⁰.

Hamarkadaren hasierarekin batera Euskal Etxearen loraldia azaltzen zaigula esango genuke. Egoitza berria altxatu ondoren, 1950eko martxoan izan zen zabaltze ekitaldira J.A. Agirre bera joan zen. Soma daiteke erbesteratutakoen egoera ekonomikoa, oro har, heldu zireneko larritasunetik nahiko urrun zegoela eta epealdi egonkor baten atarian zeudela. Nolabaiteko egonkortasun hau ere dokumentazioan antzeman daiteke. Egia da lehenengo zortzi urteetan EAB martxan zegoela pentsatzeko arrazoiak badaudela, baita tarte horretan erakundeari buruzko idatziak egon zitezkeela ere, baina zentruan aurkitutako akta liburuak, memoriak eta abarrak 1950.etik aurrerakoak dira.

⁹ UGALDE, Martín (1957). *Quince años del centro vasco de Caracas*. In *XV Aniversario del centro vasco de Caracas* Caracas, 10. orri.

¹⁰ ECOS del CENTRO. (1946/1). *Tombola Euzkadí* 31. zkia. 57. orri. ECOS del CENTRO. (1947/1). *Actividades de Acción Femenina Vasca*. Euzkadí 43. zkia. 77-78. orri

Hain zuzen 1952-53 urteko memorian zera irakur dezakegu: *"Emakume Abertzale Batza en el exilio, siguiendo la línea de conducta que se trazó desde su fundación y en todo cuando esté de su parte, quiere ser fiel a su lema de amor a Dios y a la Patria. Así pues tenemos un año más de labor en ayuda a los necesitados y otras actividades las cuales expondremos en esta memoria"*. Eta EAB-n parte hartzen ez duten emakumeak aipatuz laguntza lanaren aipamena egiten dute: *"A aquellas que viven al margen de nuestras actividades sirva esta exposición para recordarles que todavía existen compatriotas sufriendo en el destierro, que todavía hay presos en las cárceles, que hay perseguidos y muchos enfermos y necesitados a los que, sin que a nosotras nos cueste un gran sacrificio podemos y debemos seguir ayudando"*¹¹.

Une horietan Hegoaldeko errepresaliatuei laguntza ekonomikoak bialtzeko beharra azpimarratzen zen gainera, memoria horretan Euzkadiko EABtik jasotako gutunaren berri ematen zuenean: *"A reforzar las razones de nuestra exposición viene oportuna una carta de EAB de Euzkadi que, destinada a todos los vascos de buena voluntad, hemos recibido, en la que ruegan se intensifique la ayuda económica que pueda prestarse, para poder acudir en alivio de las muchas necesidades de nuestros hermanos"*¹².

Nondik igortzen zen karta hori? EABren dokumentazioan antzeman ahal izan dugun bezala frankismo osoan zehar bat izan zen Caracaseko EABko solaskidea: Julia Laskibar¹³. Emakume honek Caracaseko EABri igorritako gutun batean azaltzen duenaren arabera 1938.ean hasi zen Zibouren lanean, 1963.ean Donibane Loitzunera mugitu zen arte; *"Mi nueva dirección será en S. Juan de Luz, 16 Rue Garat, pues hemos dejado Ziboure después de 25 años allá"*.

Julia Laskibarrek Iparraldeko Emakume Abertzale Batzan beste emakume batzuekin batera lan egiten zuen. Dokumentazioan konprobatu ahal izan dugunaren arabera Caracasetik hiru hilabetero bialtzen zen diruaren jasolea zen, baita ere era berean Hegoaldeko herrialde ezberdinekin zein Frantzia edota Iparraldean zeuden behar ezberdineko erbesteratuekin kontaktatu eta dirua banatzen zuena. Hegoaldearen kasuan hiriburu bakoitzean kontaktatzen zela ematen du, 1957.ean Gipuzkoan beste herri batzuetan ere EABren zenbait

¹¹ EAB Memoria 1952-53. 1. orri. Caracas. Ciclostyl. Benediktiarren artxibategia. Lazkao.

¹² Idem, 1. orri.

¹³ 1897.ean jaiotako Tolosako familia nazionalista ezagun baten alaba, Iparraldera joan zen gerra garaian. Bertan EABko partaide aktiboa izan zen, Concepcion Azaola lehendakaritza karguan zegoela eta azken hau hil zenean betekizun hau bere gain hartu zuen. Frankismoa bukatutakoan Iparraldean mantendu zen, gaur egun bere 100 urteekin Donibane Loitzunen bizitokian.

taldetxo ari zirela soma dezakegularik: "Tenemos noticia que en Guipuzcoa se han organizado las emakumes en los pueblos y acuden a Donostia a buscar ayuda para los necesitados por ellos socorridos"¹⁴. Gipuzkoako talde hauen beste berririk ez daukagu, baina iturri ezberdinetatik baieztatuta dagoena da Donostiako EABren taldearen ekintza¹⁵.

Julia Laskibarrek egiten zuen beste lotura Pariseko emakumeekikoa izan zen; "Son cerca de 40 los que atendemos desde aquí pues creo les dije que desde Paris nos mandan sus listas las emakumes y así a todos los necesitados se les gira en metálico y si tienen necesidad de ropa procuramos comprarla o pedirla a los patriotas de esta (sic.) y así aliviar en algo la triste situación del que sufre penas sobre todo por falta de salud"¹⁶. Lerroetan azpimarragarria da dirubiltze honek ongiegitearekin agertzen duen harremana baina ez dugu ahantzi behar orduko ideologian naziogintza eta erlijioa bat eginda agertzen zaizkigula: nazioaren aldeko iharduera Jaungoikoaren aldekoa ere bada, eta alderantziz. Sofritzen duenari laguntzea da helburua nahiz eta batzuetan nazionalistak ez izan: "... se les envía giros y ropa según familia y necesidades por Gabon, tombola de Caracas, fiestas del Corazón de Jesús y Virgen de Agosto, Aberri Eguna y a la entrada del invierno para leña o carbón, aparte de ayuda en enfermedades, operaciones y casos de urgencia, siempre comprobando sus peticiones sin saber su política pues al saber un basko en necesidad emakume acude a su socorro"¹⁷.

Hala ere, karitatetzat har daitekeen ekinbide honek ez ditu une batez ere galtzen testuinguruaren tentsioa eta esangura politikoa. Horren adibidea urte batzuetan luzatzen den Iparralde eta Caracaseko EABren arteko puntu beltz bat dugu, Ameriketatik "barnekaldeko" emakumeen identitatea ezagutzearen eskaera hain zuzen. J. Laskibarrek egoera honi emandako erantzunak egoera

¹⁴ Julia Laskibarrek Olazabal andreari igorritako gutuna. Ziboure, 1957/IV/7. Caracaseko EAB. Nabarmendu nahi dugu gutun honek Emakume Abertzale Batzaren idazburua duela.

¹⁵ "Garai bateko txilpeko lanean ere etzan atzean gelditzekoa, ez! Besteak beste, Emakume Abertzaleak bildu, eta aal zanean jarri gintuan, bere zainpean ekitzean jarri ere. Orduko lan haundienetako espetxeetan ziranrentzat, jaktak, jantziak, bear ziran guziak biartzeko, dirua naiz galak biltzea izaten zen" ARZELUS, A. (1985): Ira'ren omenez in EUSKARAZAINTZA (arg.): Zipitria'tar Elbire Andereañoa. Omenaldia. Lopez Mendizabal. Tolosa. 145-149. orri. Donostiako EABko talde honetaz ikus: FERNANDEZ, I. (1994): aipatutako lana.

¹⁶ Julia Laskibarrek Olazabal andreari igorritako gutuna. Ziboure, 1958/I/10. Caracaseko EAB. Zentzu honetan Frantziar laguntza jasotzen zuten zenbaltzuen eskerroneko gutunak ere aurkitu daitezke Caracaseko EABren dokumentazioan. Parisen erberteratuta zegoen beste EABko emakume batek honela zioen, gure ustez J. Laskibar berari buruz: "Teníamos una lista, teníamos una lista que estaba en París. En San Juan de Luz había más gente y estaba esta chica, que vivía en Ziboure, no era Concha Azaola, era... no puedo acordarme, no puedo acordarme, del nombre no puedo acordarme. Esas recibían mucho más dinero porque el dinero que, por ejemplo, mandaban de Caracas o de Mexico iba a parar allí".

¹⁷ Julia Laskibarrek Goñi andreari igorritako gutuna. Ziboure, 1960/X/6. Caracaseko EAB.

politikoaz ongi jabeturiko pertsona batenak direla aitortu beharra dugu: "Contesto a tus preguntas; no puedo enviaros los nombres de las personas que reciben el dinero en las provincias del interior 1º por ignorarlo nosotras, pues los destinatarios son por terceras personas; no lo hemos querido averiguar para evitar contratiempos pues esas abnegadas emakumes que trabajan y atienden al necesitado lo hacen exponiendo su libertad y es facil, si se saben nombres, divulgarlos" edo urte batzuk beranduagoko hau: "Mil y mil gracias a todas y cada una en particular por el trabajo que se han tomado en organizar la tombola que tanto nos alivia para seguir ayudando a todos nuestros hermanos enfermos, ancianos y jóvenes que llegan escapando de esa política brutal que deshace la vida de nuestro pueblo"¹⁸.

Caracaseko EABtik Julia Laskibarrenganaino iristen ziren diru kopuruak hirihilabetero igortzen ziren eta gabonetan, tonbolaren emaitzak hartuta, diru kopuru haundiago bat bialtzen zen. Eskutartean izan dugun dokumentazioan urte batzuetako datuak falta dira eta ezin dugu kopuru globalik aurkeztu. Bai ordea orientabide gisara balio dezaketen zenbait datu:

a) "Los 150 \$ mensuales convertidos en francos se reparten en partes iguales entre las del interior y nosotras. De esta parte del interior, convertida en pesetas se hacen tres lotes; uno para Bizkaia, otro para Gipuzkoa y otro para Araba y Navarra"¹⁹. Kontsultatu ditugun akten arabera 1951.ean jadanik bialtzen ziren kopuru hauek.

b) 1957.eko gaboneko zozketatik 3.200\$eko bialketa egin zen, ondoko ondorioekin: "Los 3200\$ han producido en francos 1.424.000!!! Que hermoso poder repartir este dinero!!! Al interior va como siempre la mitad que en pesetas han sido 75.000 y se ha distribuido como de costumbre"²⁰.

d) Caracasen 1970.ean egindako txosten batean, "Lista de envios a la señorita Lasquibar" izeneko atalean 1965.eko hirugarren hiruhilabetetik 1970.eko lehenengo hirihilabetera bitartean buruturiko diru kopuru guztiak agertzen zaizkigu, orotara 9200\$ direlarik²¹.

Caracaseko EABk egindako diru bilketek beste jasole batzuk ere izan zituzten: Venezuela barruko ongiegitea (1960.eko asanbladan erabakitakoa,

¹⁸ Julia Laskibarrek Karranza andreari igorritako gutuna. Ziboure, 1959/XI/8. Caracaseko EAB. Julia Laskibarrek Aznar de Solabarieta andreari igorritako gutuna, Ziboure, 1969/III/22. Caracaseko EAB.

¹⁹ Julia Laskibarrek Goño andreari igorritako gutuna. Ziboure, 1960/X/6. EAB Caracas.

²⁰ Julia Laskibarrek Olazabal andreari igorritako gutuna. Ziboure, 1958/II/16. EAB Caracas.

²¹ EAB. Barne txostena. 1970/III/20. Caracas.

nahiz eta lehenagotik ere horri buruzko zenbait ekintza ere aurkitu dugun) edo 1963.tik aurrera Donibane Loitzunen zegoen Aita Domingo Onaindia "barnekaldeko" apaiz abertzaleentzat.

Sare hauek noiz arte funtzionatu zuten ez dakigu. Gure ustez, hemen azaldutakoa amaraun haundiago baten bidexka baino ez litzateke; seguraski esistitu egin ziren beste jatorri ezberdinetako diru iturriak (Pariseko EABko partaideak Mexiko aipatzen zuen, baina beste batzuk ere egon zitezkeen, batez ere kontutan hartzen badugu erbesteko hainbat tokitan EAB berragertu egin zela). Gure ustez Julia Laskibar izan zen EABko sare horretako korapilo garrantzitsu bat²², baino gehiago ere egon litezke.

Egia dena da frankismoaren bukaerak euskal erbestertuentzat data mugakorra izan zela. Hainbatentzat diktadorearen heriotza bueltarako baldintza nahikoa izan zen eta testuinguru honetan Caracaseko EABrentzat ordura arteko erresistentziaren zentzua ez ote zen galduko galdetu beharrean gaude. 1977.eko uztailaren 30eko asanbladan honako hau irakur daiteke: *"Después de oída la exposición hecha por la vicepresidenta, se procedió a someter a consideración de la Asamblea si cree conveniente que el dinero que se recaude en la rifa de Gabon la parte que anteriormente se enviaba a Euzkadi como "Ayuda a presos" se dedique para Cultura Vasca y Euskera, concretándose en tres objetivos como son: ikastola, colaboración con Euzko Gaztedi y Premio Andima Ibiñagabeitia. Esta proposición fue sometida a votación, habiendo sido aprobada por unanimidad"*²³.

²² Baietzapen hau egiteko Paris, Iparralde eta Venezuelako EABko kideen testigantzetatik ateratzen dugu, baita Caracaseko emakumeak Laskibarrekiko lotura eztabaidan jarri zutenean Euzko Jaurlaritzaren ordezkariak emandako erantzunetik ere: "... decidimos pedir orientación a nuestro delegado Sr. Lucio Aretxabaleta y Sr. Fernando Carranza quienes nos recomendaron enviáramos a la emakume Julia Laskibar, persona de toda garantía y persona situada en un lugar clave para hacer contactos con los de la Euzkadi Continental como Peninsular..." EAB, Memoria 1961-1962; 4. orri. Caracas.

²³ EAB. 1974/X-1977/VII bitarteko Akta Liburua. 1977/VII/30.eko asanblada orokorra. Caracas.

*Lehenengo ideia azpimarragarria aurreko ikerketen osagarri den hori: EAB-k gerra zibila baino lehenagora arte buruturiko iharduera birsortzen da erbesteko zenbait tokitan (gutxienez Iparralde, Paris eta Caracas).

*Eskenatoki berrietan emakumeak ordura arte garatzen zetozen funtzio bera, alegia, euskal giza taldearen birsorkuntza biologikoa eta ideologikoa burutzen jarraitu zuten, tokiz tokiko aldaketak eta egoitzapenak eman ziren arren.

* Euren funtzioa, jenero banaketaren ikuspuntutik, tradizionala den arren, funtzio politikoa ere betetzen duela esan behar dugu, ongiegitearen izenpeko iharduera zenbaitzuek euskal erresistentziari (honela izendatzen da euren txostenetan bertan) bideratzen zizkiotelarik.

*Euskal erresistentziari zuzendutako diru bilketaren dispositibo osoa emakumeek bideratzen zuten: Caracasen dirua biltzeko ekintzak antolatuta (kuotak, tonbola, zozketak, jaiak...), diru hori kudeatu, Iparraldera bialdu hirihilabetero bialketa bakoitzari zegokion gutun trukaketarekin batera²⁴, Iparraldeko EABk dirua jaso eta era berean kudeatu, banatu eta helbide ezberdinetan jarri eta helmugaraino iritsarazi. Honek guztiak lotura ezberdinen bidezko sare baten egitura behar zuen eta hegoaldeko emakumei dagokienez, gutxienez, diskrezio handia. Sare guzti honen antolamendu eta funtzionamendua, ditugun datuen arabera, autonomia da, nahiz eta beste erakunde nazionalistekiko harremanak eta loturak egon bazeudela susmatu.

* Aipatutako guztiak argibideak baino gehiago galderak planteatzen dizkigula esango nuke:

- Nola osatzen da sare osoa? Nor dago beste muturretan? Nola bideratzen ziren kartzelatuekiko laguntzak? Nolako epeak bereiz daitezke erresistentzia lan honen barruan? Nola zegoen antolatuta barnekaldea?

_ Donostiako EABko taldeaz gain, non eta nortzuk osatuak dira gainerako taldeak? Nola funtzionatu zuten? Zertan ihardun zuten? Noiz desagertu ziren?

²⁴ Azpimarratu nahi dugu lan guzti honek funtzionamendu formal eta jarraitua berenganatu zuela, hain da horrela Caracaseko EABko organigrama eta funtzioen banaketan ere badagoela horretara dedikatzen den pertsona bat. EABko Administrazio atalaren barnean zera irakur dezakegu: "Sección de cobros, pagos, compra de cheques y correspondencia derivada de ello: (...) A fecha fija, o sea, todos los meses más o menos a mediados, deberá enviarse a Francia el cheque el cheque en dólares que será comprado en el Banco que la persona que se ocupe del crago tenga más a su comodidad. Deberá enviar con el cheque una carta en la que indique el número y la cantidad que indique el cheque" EAB. **Orden interior de la asociación.** 1959/II. Caracas.

-Zergatik urtzen da EAB trantsizioan? EABko emakumeak EAJtik aparteko egitura finko batean aritu baziren, zeintzuk arrazoi egon ziren frankismo ostean izaera horrekin ez legezatzeko? Ba al dago EABren barruko belaualdi erreleborik?

*Galderak asko dira eta erantzunak aurkitzen hasi baino ez da egin. Tamalez emakume hauen historia galduko den horietako bat dela susmatzen dugu, inork garaiz hartzen ez badu behintzat. Baina lehia honetan agian denborak kendu digu eskua.

